

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteartea, 2012ko apirilaren 3a. IX. urtea. 2.386. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Langile bat hil da makinak harrapatuta, Villabonako Borobil enpresan

45 urteko gizezkoari papera mozteko makina batek toraxa zapaldu dio eta unean bertan hil da; eskualdean lan istripuz gertatu den aurtengo lehen heriotza da

Sindikatuak heriotza salatzen du eta hainbat eragilek elkarretaratzeak egingo dituzte; segurtasun arloan legedia betetzea eskatu du Galder Azkue alkate billabonatarrak **02**



Nerea Amilibia eta Hassan Ait Chao izan dira azkarrenak Larraulgo proban

Bigarren antolatutako Larraul-Ernio-Larraul mendiko lasterketa; 100 korrikalari inguruk hartu dute parte Larrauldik Erniorako joan etorria egiten duen 15 kilometroko proban **07**



100 lasterkari inguru izan ditu aurtengo Larraulgo probak. ERIKA SARASOLA

AHTaren Zizurkil eta Andoain arteko zatiaren lehen harria jarri dute

Patxi Lopez lehendakaria izan da ekitaldian, abiadura handiko trenaren lanei «bultzada» emateko amoz; elkarretaratzea egin du AHTaren aurkako taldeak eta obraren inguruko «informazio eza» salatzen **03**

Josexo Urrutiak egin dizkio jasoaldi gehien Etxauriko Harriari

136 kiloko harri baldarrari bederatzi jasoaldi eginda Izeta III.a eta IV.a faboritoen aurretik sailkatu da leitzarra, txapelketa irabaziz **07**

Olazabalek eta Jaunarenak garaipenkin hasi dituzte finalurrekoak

Ostiral gauean hasi zuten Binakako Txapelketako finalurreko ligaxka; aresoarrak eta leitzarrak puntu garrantzitsuak eskuratu dituzte **06**

Langile bat hil da Villabonako Borobil lantegian, makinak harrapatuta



Istripua Villabonako Industrial Borobil lantegian gertatu zen, atzo goizean. I. URKIZU

Euskal gehiengo sindikalak, hainbat eragilek eta CCOO elkarrataratzeak egingo dituzte gaur eta bihar

Itzea Urkizu Amasa-Villabona

Langile bat hil zen atzo goizean, Villabonan dagoen Borobil grafi-ka lantegian. Udaltzaingoak azaldu zuenez, 45 urteko gizonezkoa makina batek harrapatu zuen, eta toraxa zapalduta hil zela argitu zuten. Ertzaintzak 09:30ean jaso zuen deia, eta langilea istripua izan zuen unean bertan hil zen. Papera mozteko makina automatikoak harrapatu zuen gizonezkoa, LAB sindikatuak eta Osalanek azaldu zuten. Ertzaintzak azaldu zuenez, suhiltzaileek ere ezin izan zuten ezer egin.

LAB sindikatuak, bere aldetik, elkartasuna azaldu nahi izan zien langilearen senideei: «Lehenik eta behin, elkartasuna adierazi nahi diogu haren sendiari, lagun, lankide eta gertuko guztiei», azaldu zuten. Era berean, lan istripuagatik gertatu den azken heriotza «gogor» salatu nahi izan zuten,

Euskal Herrian urtea hasi zenez geroztik lan istripuz hildako 11. langilea zela gogora ekarri. Hau guztia dela eta, mobilizazioak antolatu ditu sindikatuak: «LAB sindikatutik mobilizatzeraz dei egiten dugu, guztion artean, langile zein jendaratean sarraski hau geldiarazi dezagun. Datozen orduetan, erantzun zabala eta anitza artikulatzen saiatuko gara hainbat jendarte zein enpresa eremutan», gaineratu zuten.

Euskal gehiengo sindikalak bihar egingo du elkarrataratzea, 12:00etan, Borobil lantegiaren aurrean. Bestalde, Tolosaldeko hainbat eragileek gaur 19:00etatik 19:30era elkartuko dira, Tolosako Trianguloa plazan, *Lan istripu gehiagorik ez!* lelopean.

Helburu bertsuekin, CCOO-Euskadi sindikatuak ere, elkarrataratzea egingo du gaur, 12:00etan, Industrial Borobil enpresaren aurrean; *Osasuna ez da saltzen, lan istripurik ez* lelopean elkartuko dira aldarrikapenak egiteko. Protesta honekin, «lan istripuen inguruan enpresek eta euskal instituzioek agertzen duten interes eza» salatu nahi dute sindikatuko kideek.

Villabonako alkatea den Galder Azkuek ere, bat egin du alda-

↓ Deialdiak

APIRILAK 3, GAUR

■ **12:00etan.** CCOO sindikatuak deituta elkarrataratzea Industrial Borobil lantegiaren aurrean.

■ **19:00etatik 19:30etara.** Tolosaldeko hainbat eragilek, besteak beste, EHNEK, Bilgune Feministak, gazte independentistak eta ezker abertzaleak,

rrikapenekin, eta doluminak eman dizkio sendiari: «Tamalgarrria da. Edozein heriotza tristea bada ere, bizimodua atera behar, lanera joan behar eta bertan istripuz bizia galtzea, ez da bidezkoa. Bere senitarkeokin eta hauen atsekabearekin bat egin behar da, eta mesedez eskatu behar da, lan baldintzetan eta segurtasun arloan behintzat, ahal den maila altuenean, indarrean dagoen legedia betetzeko. Eta ez dadila berriro horrelakorik gertatu».

Lan istripuagatik aurtengo eskualdeko lehen heriotza izan da atzo Villabonan gertatu zena. Ho-

elkarrataratzea egingo dute Tolosako Trianguloa plazan *Lan istripu gehiagorik ez!* lelopean.

APIRILAK 4, BIHAR

■ **12:00etan.** LAB, ELA, ESK, STEE-EILAS, EHNE eta HIRU euskal gehiengo sindikalak deituta elkarrataratzea Industrial Borobil lantegiaren aurrean.

nen aurretik, ordea, 2011ko irailaren 8an zendu zen langile bat, Tolosako Aldaba Txiki auzoan, abiadura handiko trenaren lanetan ari zela. 47 urte zituen gizonezkoari, kamioia gidatzen zihola gertatu zitzaion istripua, eta udaltzainek, Ertzaintzak eta Guardia Zibilak jakinarazi zuenez, 22 tonako kamioiak aurrealde guztia kolpatua zuen. Kamioia amildegitik behera erori zen, bueltarik eman gabe, eta lankideek azaldu zuten, beheko errepideak irauli eta kolpatua geratu zen ibilgailua.

• iurkizu@hitza.info

↓ Lan istripuak

2012AN LAN ISTRIPUZ HILDAKOAK

- **Urtarrilak 9.** Oñatin (Gipuzkoa), 59 urteko langilea, buruan pieza baten kolpea jasota.
- **Urtarrilak 10.** Erandion (Bizkaia), 49 urteko langilea, altuera handiko gune batetik erorita.
- **Urtarrilak 23.** Galdakaon (Bizkaia), 32 urteko langilea, kamioi batek kolpatuta.
- **Otsailak 14.** Zangbranan (Arabia), 41 urteko langilea, horma bat gainera erorita.
- **Otsailak 17.** Okondon (Ara-

ba), 45 urteko langilea, arrazoi ez traumatikoak direla eta.

■ **Otsailak 21.** Pasaian (Gipuzkoa), itsasora erorita.

■ **Otsailak 27.** Retuertan (Bizkaia), 54 urteko langilea, arrazoi ez traumatikoak direla eta.

■ **Martxoak 1.** Zeanurin (Bizkaia), 46 urteko langilea, misioan.

■ **Martxoak 9.** Durangon (Bizkaia), 59 urteko langilea, arrazoi ez traumatikoak direla eta.

■ **Apirilak 2.** Villabonan (Gipuzkoa), 45 urteko langilea, makinak harrapatuta.

→ Laburrak

Udalbatzaren ohiko bilkura egingo dute gaur

IBARRA › Udalbatza osoaren ohiko bilkura egingo dute gaur Ibarra udalbatzaren, 19:30ean hasita. Gai zerrendan bederatzita puntu daude, eta horien artean bi mozio daude. Lehena, PSE-EE alderdiak aurkeztuko duen atez ateko bilketaren ingurukoa izango da, eta bigarrena, Bate-ragune auziaren ingurukoa izango da, Bildu koalizioak aurkeztutakoa.

Zaborra eta uraren udal tasetarako laguntzak

GIZARTEA › Zaborraren eta uraren tasak ordaintzerakoan laguntzak emango dituzte Iru-rako eta Amasa-Villabonako udalek. Diru sarreraren arabera-koak dira laguntza hauek. Iru-ran, eskariak egiteko epea hila-ren 4ean, asteazkenean, amaitzen da, eta Amasa-Villabonan hilaren 26an. Informazio gehiagorako udalwebetara joan behar da.

Sutarako egurra eskatzeko aukera zabaldu du udalak

LEITZA › Sutarako egurra eskatzeko 012 telefono zenbakira deitu behar dute herritarrek edo baseritarrek, maiatzaren 31 baino lehen. Gaitz egurra nahi dutenek epe bera dute eskaria egiteko, baina kasu honetan, udal idazkaritzara joan beharko dute. Lotearren truke 45,88 euro ordaindu beharko da. Diru hori berreskuratzeko aukera jarri du udalak, auzolana eginez. Norberak adierazi beharko du noiz egin ahal duen auzolana.

Liburuaren Eguna herritarrekin ospatu

ALEGIA › San Juan ikastetxean apirilaren 23ko Liburuaren Eguna ospatuko dute. Eskolatik pasatako ikasleak, eta oro har herritarrek, ipuin kontalari bilakatu nahi dituzte egun horretan. Ipuin bat kontatu edo irakurri nahi duenak Liburuaren Egunean, eskolarekin jarri behar du harremanetan, eta horretarako 943 65 23 37 zenbakira deitzea eskatu dute San Juan eskolas-kideek.

Etxe etxeko laguntzari buruzko hitzaldia

AMASA-VILLABONA › Etxe etxeko laguntzari buruzko hitzaldia antolatu du udalak, hilaren 17an, asteartean. Hitzaldia Zaharren egoitzan izango da, 17:00etatik aurrera. Herritarrei bertan parte hartzeko eskatuta die udalak.





Patxi Lopez agerraldian hizketan, Carlos Urquijo eta Iñaki Arriola atzean dituela. I. URKIZU

Patxi Lopezek «bultzada» eman nahi izan die AHTaren lanei Zizurkilen

Zizurkil eta Andoain artean trenak egingo duen ibilbideko lehen harria jarri dute ekitaldian

I. Urkizu Zizurkil

Atzo goizean jarri zuten, abiadura handiko trenak Zizurkildik Andoainera bitarte egingo duen bidearen lehen harria. Patxi Lopez lehendakariak, Iñaki Arriola Garraio sailburuak eta Carlos Urquijo Espainiako Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoan duen ordezkariek parte hartu zuten ekitaldian.

Lopez lehendakariak Garraio Saila egiten ari den lanari «bultzada» eman nahi izan zion, eta gogora ekarri zuen legegaldi hasieran «trenbideko zati bakarria» zegoela obretan, eta gaur egun hamasei zatitako lanak martxan direla. Era berean, 2012an bertan eskualdeko beste zati batean ere lanak hasiko dituztela nabarmendu zuen lehendakariak: «Une honetan lizitazio prozesuan dagoen Hernialde-Zizurkil zatiko lanak hasiko dira aurtan; lan horiek hasten direnean, Gipuzkoako adarreko 59 kilometro obretan izango dira».

Ordezkariek politikok hitza hartu aurretik, trenbide zatiaren azalpen teknikoak jaso zituzten guztiek, plano eta maketen bidez. Jarraian, Carlos Urquijok «krisi garaia» gogora ekarri zuen, aurrekontu horrekin lan horiek egitea goraipatuz: «Lanen meritua are handiagoa da, duten aurre-

kontua ezagututa». Zizurkil-Andoain zatirako bideratutako diru kopurua, 193,5 milioi eurokoa izango da, eta bidearen zatirik handiena tunelen barruan joango da. Hain zuzen ere, Zumarragako bi hodikoaren ondoren, Gipuzkoako adarreko bigarren tunelik luzeena izango da eraikiko dutena, 4,7 kilometroko luzerarekin.

Atzoko agerraldian aurkeztu zuten trenbide zatiak Zizurkil eta Aduna hartuko ditu eskualdean, eta baita Andoain ere. Ibilbideko 4.970 metroez gain, proiektuan beste zenbait gune ere diseinatu dituztela azaldu zuten: tunelen ahoetara iristeko bideak, trenbide instalazioak nahiz bestelako lan osagarriak. Euskal Trenbide Sareko arduradunek azaldu dute-

nez, lehenasuna eman diote «uneoro ahalik eta zati txikiena okupatzeari, eta ingurumenean ahalik eta eragin urriena izateari».

Aurkako aldarrikapenak

Lehen harria jartzeko ekitaldia izan zen karpantik 200 metro ingurura, Aiztondoko AHTaren aurkako taldeak elkarretaratzeari egin zuten, beren aldarriak azaltzeko.

Taldeak, abiadura handiko trenaren proiektuaz gain, egoera ere salatu nahi duela azaldu zuten: «Herritarrek nahikoa informazio ez duten arren, dagoeneko Zizurkil-Andoain zatiko lehenengo harria jarri dute. Ez herritarrek, ez udalek, ez dute gaurko ekimenaren berri izan, eta horrela ikus

daiteke, nola daramaten dena ez-kutuan».

Informazio falta salatuz, AHTaren aurkako taldeari «ulertezina» suertatzen zaio lanak hasitzat jotzea, «desjabetzeak burutu gabe daudela». Bide honetan, «zabortegegiak non ezarri aztertzen ari» direla azaldu zuen taldeak, eta «udalek proposamen berri bat egin» dietela, eta ez dutela «erantzun zehatzik jaso». Honen aurrean, «desjabetuak nortzuk izango diren ezin da jakin», dio AHTaren aurkako taldeak.

Azkenik, krisiaren gaia ere gogora ekarri zuten, eta «AHTrako dirua bideratzeko, beste eremu batzuetan gutxitu beharra» dagoela salatu nahi izan zuten: «Inoiz baino arrazoi gehiago daude AHTari ezetz esateko».



Aiztondoko AHTaren aurkako taldea bertaratu zen, aldarrikapenak egitera. I. URKIZU

Azkarateren euroagindu eskaera gaitzestea onartu du udalbatzak

Azken osoko bilkuran, handakinen bilketarako sistema nahiz osasun publikoa ere izan dira hizpide

I. Urkizu Tolosa

Pasa den asteartean izandako Tolosako Udaleko azken osoko bilkuran, lau mozio eztabaidagai izan ziren, eta besteak beste, Manu Azkarateren euroagindu eskaera gaitzestea onartu zuten Bilduk eta Aralarrek.

Tolosako hainbat eragilek aurkeztutako mozioan, Azkarateren kasua bezalako atxiloketek eta euroagindu eskaerak, garai honetan «tokirik ez» dutela izan behar nabarmendu zuten. Bide honetan, hiru eskaera zehatz egin zituzten udalbatzari, batetik, Azkarateren aurkako euroagindu eskaera gaitzesteko, eta espainiar nahiz frantziar gobernuak ere horretara bideratzeko. Mozioa Bildu eta Aralarreko bozkekin onartua izan zen; PSE-EEK aurkako bozka eman zuten, eta jeltzaleek abstentzioaren alde egin zuten.

Eskualdeko osasun publikoaren azuia ere hizketa gai izan zen batzar aretoan, TOPA koordinakundeak aurkeztutako mozioa medio. Onartua izan zen, Asuncion klinika eskualdeko ospitale publiko izatera pasatzeko eskaera. EAJK mozio alternatiboa aurkeztu zuten, eta PSE-EEKo Jose Ignacio Asensiok, berriz, publikazioa eskatzeko egoerarik onena ez dela nabarmendu zuten.

Hondakin bilketaren azuia

PSE-EEK eta EAJK, mozio baina aurkeztu zituzten hondakin bilketaren inguruan. Hala ere, Bilduk aurkeztutako mozio alternatiboa onartu zuten, Bilduko zinegotzien eta Aralarren bozkekin, besteak ez zituzten bozkatu. Besteak beste, EAJKo udal taldeak hondakin bilketaren inguruko auzian erreferenduma egitea eskatu zuten.

• tolosa@hitza.info

Iragarki laburrak

ETXEBIZITZA

■ **Pisukide bila.** Tolosan, erdigenetik oso gertu, bi gela aukeratu dituzte. Altzarietara hirituta dago, eta eguzkitsua da. Interesa duen edonork, dei dezala 665 74 63 23 telefono zenbakira.

Tolosa



AUTODEFENSA FEMINISTA

Bilgune Feministak antolatuta autodefentsa feminista ikastaroa egin zuten larunbat goizean, Tolosako kultur etxean. Emakume ugari bildu ziren bertan, eta helburua emakumeen beren buru jabetza indartzen laguntzea izan da. Izan ere, esaso bat sailatu eta hori aurreragotzeko balabideak izan behar dira, eta horiek ematen salatu dira Bilgune Feministako bi kide, ikastaroa, hala ere, ez ziren defentsa teknika soiletan oinarritu, emakumeenganako bortizkeriaren oinarriak eta zergatiak aztertuz zituzten, ohiko ahultasun rola surtitzaren laguntzeko. BERNARDINO

Tolosa



RODRIGUEZEN HILKETA SALATUZ

Tolosako Utaarafu-Ezagutuz elkarteak elkarretaratzeara egin zuten ostrialean, Trianguluan, emakumeen kontrako indarkeria salatuzko. Izan ere, pasa den igandean Caridad Rodriguez Arleta hil zuten uztar bere bikotekideak, eta gertakariaren aurka azaldu dira taldeko kideak. Egoitza Tolosako San Frantzisko etorbidean dute eta mezquita bezala funtzionatzen du ere. Islama eta musulman kultura ezagutaraztea da elkartearen helburuetako bi. BERNARDINO

Tolosa



HAURRAK TXOTXONGILO BIHURTU DIRA

Martxoaren 2lean izan zen Txotxongiloaren Nazioarteko Eguna, baina Tolosako txotxongiloen etxean. Topic zentroan, ostrialan ere ospakizun egin zuten. Haurrak bi taldeetan banatu zituzten; txikiak (lehen irudia) eskulanak egiten aritu ziren, eta helduenak (bigarrena) Paula Alfieri irakaslearekin bildu ziren hainbat teknika

ikasteko. Alfieri irakasleak txotxongilo bihurtu zuten: oihalei bizi ematen ikasi zuten; binaka jarri eta haurretako batek txotxongilo lana egiten zuten bitartean, beste txotxongilo bihurtu zen... Txotxongiloen mundua gerturatu nahi diegu, eta edozein pertsonak, irudimen pixka batekin, istorio edo errak gorpuztu ahal dituela erakutsi... esan zuten. IC

Gaztelu



HERRIRA AURKEZTU DUTE

Herrira mugimendua ari da, pixkana pixkana, heriz herriko aurkezpenak egiten, eta pasa den ostiral gauan Gazteluko bandan izan zen. Batek, mugimendua bera aurkeztu zuten, eta bestetik, hileko azken ostirala izaki, elkarretaratzeara egin zuten, besteak beste, euskal presoen eta iheslarien sakabanatzea salatuzko. BERNARDINO

Zatoz bizilagun berriak ezagutzera. **(SICOS)**
 SICOS jabetik eta San Martin 3n.
 Inguruko 3000 eta 4000 euroko gailu erabilgarriak erosten dituzte.
 SICOS jabetik eta San Martin 3n. Inguruko 3000 eta 4000 euroko gailu erabilgarriak erosten dituzte.
 SICOS jabetik eta San Martin 3n. Inguruko 3000 eta 4000 euroko gailu erabilgarriak erosten dituzte.

Aduna-Anoeta



ABERRI EGUNEAN IRUÑEARA JOATEKO DEIA EGIN DIETE HERRITARREI

Eskualdeko Bai Euzkalki Herriari ekimena hasi da hilaren 8ko Aberri Eguna prestatzen, eta hori dela eta, Independentista Sareak Iruñean egingo duen jai eta aldarrikapen egunean parte hartzeko deia egiten ari da. Asteburuan, Adunan (ezkerreko irudian) eta Anoetan (eskuinekoan) egin zuten deia, eta datozten egunetan ere eskualdeko beste herri batzuetara zabalduko dute deia. Aberri Eguna, Iruñean, autobus josteko aukera izango da. Horretarako zerrandak Tolosako Rakun, Anoetako Itzulin, Vi-




labonako Iratzaren, Ibañeko Subegin, Zuzurkileko Zentroa eta Adunako Urdartzan jarri dituzte. Autobusak Tolosako Usabai kiroldegitik eta Zuzurkileko Jose Anegi plazatik irteko dira, hilaren 8an, 10:00etan. Itzulera 18:00etan izango da. Izena emateko azken eguna hilaren 5a, etzi, da. Bestalde, Bai Euzkalki Herriari ekimenean deliadi berezia egin dute herritarrei aurtenko Aberri Egunerako etxe zati elkarteetan ikurrak jartzeko eskatuz. HTZA-ERKARABOZOLA

Tolosa



DANTZAK HARTU DU TOLOSA

Udaberri dantza taldeak Dantzari Txiki eta Erromeria Eguna antolatuta zuten larunbateko. Umeen kalejirekin hasi zen eguna, eta Tolosako hainbat tokitan aritu ziren dantzan. Guztira Euzkalki Herri osoko 350 bat haur bildu ziren, horietako 100 bat herrikoak bertakoak. Jai, dena den, ez zen goizean amaitu. Arratsaldean dantza talde bakoltzak 10 minutuko emanaldi eskalari zuten Plaza Berria eta Iluntzean helduen banda izan zen. Plaza Zaharrea bildu ondoren, triki-barranga-poteoa egin zuten. Plazaz plaza joan ziren dantza saloak eskaintzen, eta ondoren, indarberritzeko, Zerkusian elkar zuten, 120 lagun inguru elkartu ziren. Ondoren, erromeria izan zen Ermepebost taldearen eskutik. IC-OLIO-HTZA



+Visión eta barre egin eskaintzei
 armazoiak + kristalak
29€ tik hasita

Gente con + VISIÓN
 El fin de las gafas caras
 Quiérelas puestas, berramata bilduma, kristal eta tratamendu garbierak. Eskaintzak eta letra txikiak gabe.
masvision.es

Kirolak**↓ Kirol emaitzak****PILOTA**

BIGARREN MAILAKO BINA KAKO TXAPELKETA	
Olazabal-Larrinaga	22
Urrutikoetxea-Zabala	19
Jaunarena-Cecilio	22
Rico-Untoria	16

GIPUZKOAKO UDABERRI

ZESTA PUNTA TXAPELKETA	
Beotibar	35
Jai-Alaiga	24

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKOA 28. jardunaldia	
Tolosa CF-Real Union B	2-1

Sailkapena

1. Anaitasuna	58p
2. Pasaia	51p
3. Tolosa	51p

Hurrengo jardunaldia

Beti Gazte-Tolosa CF

ERREGIONAL PREFERENTEA

26. jardunaldia	
Lehen taldea	
Lengokoak-Tolosa B	2-0

Sailkapena

1. Touring	65p
2. Ostadar	62p
3. Tolosa B	49p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa B-Beti Ona

Bigarren taldea

Intxurre-Aretxabaleta	0-1
------------------------------	-----

Sailkapena

1. Lagun Onak	48p
2. Soraluze	44p
3. Zumaiako	44p
4. Anaitasuna	42p
5. Ordizia	42p
16. Intxurre	13p

Hurrengo jardunaldia

Intxurre-Lagun Onak

SASKIBALOA**NAGUSIEN MAILA****Sailkapena**

1. Santurtzi
2. Leioak Zarautz
3. Askartza
4. Bide Bide Ibiza

Hurrengo jardunaldia(2012-04-15)
Padura-Bide Bide Ibiza**SENIOR MUTILAK**

Take Orbela taberna	64
Aluminios Francisco Alberdi	39

Hurrengo jardunaldia(2012-04-21)
Soraluze Bergara-Take Orbela**SENIOR NESKAK**

Oiarso	45
Take Aralar kirolak	41

Hurrengo jardunaldia(2012-04-22)
Take Aralar-Bera Bera Balda

Telefonica liderrarengandik gertuago dago

Fernandezen ontzia hirugarren postuan dago; bosgarren etapa irabazteko itxaropena ez dute galdu

I. Terradillos Ibarra

Xabi Fernandez ibartarraren Telefonica Team ontziak Itajai (Brasil) izeneko porturako bidean jarraitzen du. Volvo Ocean Race lasterketako bosgarren etaparen helmugara iristear direla, hiruga-

rren postuan jarraitzen du ontziak, Puma eta Groupama ontzien atzetik.

Telefonica ontziak geldialdia egin beharra izan du Chileko Herschel irlan konponketak egiteko, baina bertan galdutako denbora pixkanaka errekupeztatzen ari da. Atzo eguerdian, helmugara iristeko 1.300 milia geratzen zitzaizkielarik, liderrarengandik 240 miliako distantziara gerturatu ahal izan zuten. Etapa irabazteaz ez dute lan erraza izango, baina nabigatzaileek ez dutela itxaropenik galdu esan dute.



Erritmo onean ari da Telefonica ontzia Brasilera bidean. MARIA MUJINA

Tolosarrek eskuratu dute Udaberri txapelketa

Beotibar zesta punta elkarteak 35-24 irabazi du Donostiako Jai-Alai elkartearen kontra, erosotasunez

I. Terradillos Tolosa

Gipuzkoako Udaberri Txapelketako finala jokatu zen igande arratsaldean Tolosako Beotibar pilotalekuan. Tolosako Beotibar elkarte eta Donostiako Jai-Alai elkarte aritu ziren nor baino nor,

eta tolosarrek lortu zuten azkenean txapelketa.

Tolosako Josu Trabazos eta Julen Telleria eta Donostiako Jagoba Narvarte eta Oier Enrique lehiatu ziren finalean. Partidaren lehenengo zatian errenta eroso lortu zuten etxekoek eta Donostiako bikoteak ezin izan zion markagailuari buelta eman. Gorritz aritu ziren donostiarrek kirioak dantzan izan zituzten partida osoan eta hori ondo baliatzen jakin zuten urdinek. 35-24ko emaitzarekin bukatu zen azkenean norgehiagoka.



Zesta puntako finalaren osteko sari banaketako une bat. HITZA

Emaitza onak lortu dituzte judoka tolosarrek Gipuzkoako txapelketan

Hiru urrezko eta zilarrezko eta brontzezko domina bana eskuratu dituzte infantil mailako judoek

I. Terradillos Tolosa

Gipuzkoako infantil mailako judo txapelketa jokatu berri da, eta tolosarrek emaitza onak lortu dituzte, hiru urrezko domina eta zilarrezko eta brontzezko bana lortuta itzuli baitira etxera.

Enara Amianok maila ona erakutsi zuen lehiatu zen sei probetan, eta urrea eskura izan bazuen ere, brontzearekin konformatu beharra izan zuen.

Eider Calahorra bigarren geratu zen 57 kilokoan. Fin aritu zen, eta zilarra galtzar izan bazen ere azkenean eutsi ahal izan zion.

Lesioaren ondorioz Ane Larrea hainbat hilabetez lehiatu gabe egon ondoren, 63 kilokoan aritu zen, eta Gipuzkoako txapelketa lortu zuen.



Gipuzkoako txapelketan lehiatu diren judoka tolosarrak. HITZA

Iurre Iraola «ohi bezala» ziurtasunez eta indartsu lehiatu zen, eta «erraztasunez» lortu zuen urrea.

Bestalde, Ruben Lekuonak ere urrea lortu zuen, 60 kilotan. Erregulartasunez aritu zen txapelketa osoan zehar.

Olazabal eta Jaunarena irabaziz hasi dira finalaurreko ligaxkan

I. Terradillos

Ostiral gauean ekin zieten promozio mailako binakako txapelketako finalaurrekoei Beasainen. Bertan, Olazabal aresoar eta Larrinaga Urrutikoetxea eta Zabalauren aurka lehiatu ziren, eta 22-19ko emaitzarekin irabazi zuten. Aresokoaren eta Larrinagaren aldekoa izan zen, beraz, finalaurrekoetako ligaxkako lehen puntua, baina, hori bai, lan handia eginda lortu zuten.

Bestalde, Jaunarena leitzarrak eta Cecilio bikoteak ere bikain hasi dute ligaxka. Logroño-ko Adarraga pilotalekuan jokatu zuten herenegun partida Rico eta Untoriaren aurka, eta 16 eta 22ko emaitzarekin irabazi zieten. Aspekoak gehiago izan ziren, partida osoan zehar aurretik joan zirelarik. Jaunarenak abiadura handia eta erremate bikaina dituela erakutsi zuten.

Laskorainek 6-2 galdu du Concepto taldearen aurkako derbia

Partida hasi aurretik Endika atezainak sorbalda atera du, eta Iker Saralegi jubenilak ordezkatu du

Iñaki Egizabal Tolosa

Areto fuboleko 2.B mailan lehia-zen duten bi talde gipuzkoarren arteko bigarren derbia jokatu zuen Laskorainek, Conceptok Elgoibarko Olaizagan. Ezaugarririk funtsezkoena parekotasuna izan ohi den arren, larunbatean logikak ez zion ustekabeoari abagunerik eskaini eta elgoibartarrak 6-2 nagusitu ziren.

Arratsaldean, partida hasi aitzinetik okertu zen ikastolakoentzat: Endika atezain titular bikainari beroketan sorbalda irten zitzaion. Iker Saralegi jubenilak ordezkatu zuen. Bere debutean meritu handiko partida osatuz, baina Endikaren hutsunea kolpe gogorra izan zen. Kantxa barnean, lehen zatian laskoraindarek Conceptokoen jokoari ederki eutsi ziotela esan behar da, etxekoan estreinakoari Mikel Alonso berdinketarekin erantzun zitzaion, nahiz eta ondoren atsendaldiaren aurretik berriro aurreratuko elgoibartarrak.

Parekotasuna aldageletatik bueltan desegin zen. 5-2koa suposatzen zuen gol laskoraindarra Joniko Otxoak sinatu zuen, baina beranduegi zen erreaxiorako. Horitxoan derbi bilduma zabal eta oparoaren azken atalburua narras xamarra gelditu da. Porrotatik baino gehiago Endikaren lesioetatik. Atezain titularrari animoak eman eta Saralegiren debut itxaropentsuarekin gelditzea tokatzen da. Lau jardunaldi besterik falta ez direnean, Laskorain azken aurrena da sailkapenean.

Nerea Amilibia eta Hassan Ait Chao nagusi Larraulgo II. mendi lasterketan

100 lagun inguruk hartu du parte mendi lasterketan; Larraulen bigarren urtez jarraian antolatu dute

Eneritz Maiz Larraul

Igandean jokatu zen II. Larraul Ernio Larraul mendi lasterketa. Ia 100 lasterkarik parte hartu zuten. Gizonezkoetan, Hassan Ait Chao billabonarra eta emakumezkoetan Nerea Amilibia zizurkildarra izan ziren lehenak helmuga marra zeharkatzen.



Larraulgo helmugako marra zeharkatzen Amilibia eta Ait Chao. E.S.

Eskualdeko lasterkari ugari parte hartu zuen, eta lan txukuna egin zuten.

15,5 kilometro egin behar izan zituzten lasterka. Larraul herritik atera, Zelatunetik pasa eta Ernio tontorrera igo eta buelta izan zen egin beharreko bidea, berriz Larraulgo helmugatik pasatzeko. Bertan, lehen hiru sailkatuek sariak izan zituzten, eta baita hamaiketako eta masa-jea hartzeko aukera ere.

Kusleak ere gerturatu ziren parte hartzaileak gogoz animatzen.

• villabona-aiztondo@hitza.info

Bederatzi jasoaldi eginda Urrutia garaile

Jose txo Urrutia leitzarrak Izeta faboritoei aurre hartuta irabazi du Etxauri Harria txapelketa

E. Maiz Leizta

Ezustekoa emanda Jose txo Urrutia leitzarrak irabazi zuen Etxauri Harria txapelketa, igandean. Bederatzi jasoaldi eman zizkion Etxauriko harri bereziari.

Etxaurin jokatzeko den txapelketako harria berezia eta baldarra da: zaila. 136,5 kiloko pisua du. Harri-jasotzaile bakoitzak bosna minutuko txandak izan zituen harria sorbalda gainera jasotzeko.

Lehia hasi aurretik, Izeta III.a eta Izeta IV.a ziren faboritok. Buktzean, ordea, Jose txo Urrutiarentzat izan zen txapela. Bederatzi jasoaldi ematea lortu zuen, eta bere atzetik bigarren sailkatu zen Izeta III.a. Faboritok izanagatik asko kosta zitzaion harriari neur-

ria hartzea, eta zazpi jasoaldi eman zizkion. Bi ustel ere egin zituen aiarrak, eta ezin izan zuen garaipena eskuratu. Hirugarren, Izeta IV. a izan zen, eta bost aldiz lortu zuen harria bizka gainera igotzea. Ez zen oso fin ibili harri traketsarekin. Laugarren eta beraz azken postuan, Telleria II.a sailkatu zen. Zaleek egin zuen lana baino gehiago egin zuela espero zuten, baina bi jasoaldi baino ez zizkion eman Etxauriko harriari. Ez zuen asmatu harriari jasoaldiak ematerakoan.

Hamabost jasoalditan marka Izeta II.ak dauka Etxauri harria txapelkete markak. Aiarrak igandean ere parte hartu nahi zuen, baina ebakuntza egin berri duela eta, geldirik egon beharrean dago.

Izeta II.ak hamabost jasoaldi emanak ditu, eta beste inork ez du lortu errekor hori hobetzea. Gogora ekarri behar da, harri jasotzaileek esku garbiekin lehiatu behar izaten dutela txapelketa honetan.

• leitzalde@hitza.info

Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

-Eskertza-

Nerea Iraeta Zinkunegi

Jaso ditugun maitasun adierazpenak eta doluminak eskertzen dizkizuegu bihotz bihotzez.

Iraeta Zinkunegi familia

TOLOSAN, 2012ko apirilaren 3an



MARTA GARMENDIA TXAKON

Urak dakarrena urak daroa zuk emandakoa gurekin gelditzen da

Bere lagunak

ANOETAN, 2012ko apirilaren 3an



JUAN ZABALA MUGICA

-Goian bego-

Agur aitona asko maite zaitugu zauden tokitik gu zaindu. Muxu

Aitor, Iñigo, Hasier, June, Hisham, Lukas

TOLOSAN, 2012ko apirilaren 3an



JUAN ZABALA MUGICA

JAUNA

2012ko apirilaren 1ean hil zen, 84 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedelinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Bere emaztea: Feli Artano; seme-alabak: Juan Mari eta Elena, Joxi (†), M^a Jose eta Juanma, Edurne eta Mikel, Pili eta Txisus, Jose Angel; bilobak: Aitor, Iñigo, Hasier, June, Hisham, Lukas; anai-arrebak: Pepita (†), Rufino (†), Pilar (†) eta Angelita; ezkon anai-arrebak: Ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren alde otoi bat eskatzen dizute eta arren etor zaitetzela ASTEARTEA, arratsaldeko SEIETAN Tolosako SAN FRANTZISKO parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Gipuzkoa enparantza 1

TOLOSAN, 2012ko apirilaren 3an



MARIA ANJELA GARMENDIA ROMATET

(Edorta Urruzolaren alarguna)

Apirilaren 2an hil zen, 79 urte zituela.

Seme-alabak: Juanmari eta Aintzane Goenaga, Bakartxo eta Carlos Rodriguez, Jose Manuel eta Gurutze Galarraga, Edorta eta Jaione Karrera, Marian; anaia, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

TOLOSAN, 2012ko apirilaren 3an

Oharra: Gorputz beila Tolosako Funeraria Oria Tanatorioan egongo da, asteartea, 12:00ak arte.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

■ **Tolosa.** Topic zentroak Donostiako Aquariumarekin batera tailerra diseinatu du apirilaren 10, 11, 12, eta 13rako. Zortzi urteik aurrerako haurrentzat da tailerra, eta orduetgia 09:00etatik 13:30era izango da. Salneurria 40 eurokoa da, lehen eguneko Aquariumera bisita eta Donostiarako bidaiak barne. Izena emateko 943 65 04 14 telefono zembakira deitu behar da.

■ **Tolosaldea.** Alruñean egingo duten Aberrri Egunerako autobusez joateko aukera jarri dute Bai Euskal Herriari ekimenak. Zerrendak Tolosako Rakun, Anoetako Itzulín, Villabonako Iratzarren, Ibarrako Subegin, Zizurkileko Zentroan eta Adunako Uztartzan jarri dituzte. Izena emateko azken eguna hilaren 5a da.

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatuen elkarteak Cuencara bidaiak antolatzen ditu, maiatzaren 7tik 12ra. Izena elkarteko egoitzan eman behar da, maiatzaren 3a arte.

ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Emakume artistek osatutako AurrezAurre erakusketa, Aranburu jauregian, hilaren 14a arte.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Tolosa



TOLOSAKO ORFEOIAREN EMANALDI BEREZIA

Tolosako Orfeoiak Aste Santuko kontzertua eman zuen Santa Clara komentuan, azken honen 400. urteurrenaren ekitaldiekin bat eginez. Orfeoiekin batera abestu zuten Tolosako Eskolanian abesbatzak, eta lagun izan zuten Concerto Orkestra taldea. Ignacio Ruiz de Alegria izan zen kontzertua zuzendu zuena. Bakarlarri gisa Mari-

fe Nogales mezzosopranoa eta Pablo Garcia Ruiz baritonoa aritu ziren. Tolosako Orfeoitik azaldu dutenez, horrelako emanaldiak musikaren garapena bultzatzeko antolatzen dituzte. Bide batez, ekimen horiek aurrera ateratzeko laguntza behar dutela azaldu dute eta Tolosako Orfeoien bazkide izatera animatu dute. KLISK

Agurrak



Zorionak!
Kontsuelo (Lizartza). Animoak eta muxu handi bat Lizartzako Ezker Abertzalearen partetik.

Bertako informazioari, bertako produktuak

Egin HITZAren harpidedun

apirilaren 3tik ekainaren 1era,

eta jaso **Ekain sagardoa**

6 botilako kaxa bana



Harpidedun egiten diren guztien artean



Harremanetarako:
902-82 02 01 • harpidedun@hitza.info

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info



urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...